# Xedapen Orokorrak

## MERKATARITZA, KONTSUMO ETA TURISMO SAILA

**1272**

120/1994 DEKRETUA, martxoaren 8koa, Kontsumoko Euskal Autonomi Elkarteko Arbitraia-batzordea atxikitzeari eta laguntzarako administrazio-zerbitzu bat sortzeari buruzkoa.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 11. atalean ezartzen denez, administrazio publiko bakoitzari dagokio, bere aginte-eremuaren barruan, administrazioa antolatzearen ondorioz sortzen diren espezializazioen administrazio-organo propioak osatzen dituzten administrazio-unitateak mugatzea.

Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailaren eta Instituto Nacional de Consumo delakoaren artean egindako hitzarmen baten bidez, Kontsumoko Euskal Autonomi Elkarteko Arbitraia-batzordea sortzeko aukera ematen da, maiatzaren 3ko 636/1993 Erregeren Dekretuaren 3. atalean.

Bidezko da beraz, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailaren egitura organikoari buruzko abenduaren 10eko 682/1991 Dekretuaren testuinguruan, Kontsumoko Euskal Autonomi Elkarteko Arbitraia-batzordea atxiki eta laguntzarako administrazio zerbitzu bat sortzea.

Ondorioz, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburuaren proposamenez, Lehendakariak onartu eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1994ko martxoaren 8an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Kontsumoko Euskal Autonomi Elkarteko Arbitraia-batzordea Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailari atxikitzea; Kontsumorako ebazpen-sistema arautzeko den maiatzaren 3ko 636/1993 Erregeren Dekretuaren babesean, Instituto Nacional de Consumo delakoarekin izenpetutako akordioan jaso zen arbitraia-batzorde hori.

*2. atala.*– Kontsumoko Euskal Autonomi Elkarteko Arbitraia-batzordeari laguntzeko administrazio-zerbitzu bat sortzea; zerbitzu hori, Kontsumo Zuzendaritzari atxikita egongo da organikoki, nahiz eta funtzionalki batzordearen menpe egongo den batzordeari laguntzeko iharduerak egiteko.

*3. atala.*– Zerbitzuak funtzio hauek betetzeko behar diren iharduerak egingo ditu:

a) Arbitraia-hitzarmenak bultzatu eta formalizatu kontsumitzaile eta erabiltzaileen eta ondasun eta zerbitzuak ekoiztu, inportatu, hornitu nahiz eskuratzen dizkietenen artean.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE COMERCIO, CONSUMO Y TURISMO

**1272**

DECRETO 120/1994, de 8 de marzo, de adscripción de la Junta Arbitral de Consumo del País Vasco y de creación del servicio administrativo de apoyo.

El artículo 11 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, establece que corresponde a cada Administración Pública delimitar, en su propio ámbito competencial, las unidades administrativas que configuran los órganos administrativos propios de las especialidades derivadas de su organización.

El Real Decreto 636/1993, de 3 de mayo, posibilita en su artículo 3 el establecimiento de la Junta Arbitral de Consumo del País Vasco mediante acuerdo suscrito entre el Instituto Nacional del Consumo y el Departamento de Comercio, Consumo y Turismo.

Procede en consecuencia la adscripción de la Junta Arbitral de Consumo del País Vasco y la creación del servicio administrativo de apoyo en el marco del Decreto 682/1991, de 10 de diciembre, de estructura orgánica del Departamento de Comercio, Consumo y Turismo.

Por todo ello, a propuesta de la Consejera de Comercio, Consumo y Turismo, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 8 de marzo de 1994,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Se adscribe al Departamento de Comercio, Consumo y Turismo la Junta Arbitral de Consumo del País Vasco, establecida en el Acuerdo suscrito con el Instituto Nacional del Consumo al amparo del Real Decreto 636/1993, de 3 de mayo, por el que se regula el sistema arbitral de Consumo.

*Artículo 2.*– Se crea el servicio administrativo de apoyo de la Junta Arbitral de Consumo del País Vasco, que estará adscrito orgánicamente a la Dirección de Consumo sin perjuicio de su dependencia funcional de la Junta para el ejercicio de las actividades de apoyo a la misma.

*Artículo 3.*– El servicio desarrollará las actividades necesarias para el desempeño de las siguientes funciones:

a) El fomento y la formalización de convenios arbitrales, entre consumidores y usuarios y quienes produzcan, importen o suministren o les faciliten bienes o servicios.

b) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen kexa nahiz murtziloen ondorioz sortutako gorabeheretan bitartekari izan.

c) Beren lurralde-eremuan, kontsumoko Arbitraiasistemari lotzeko eskaintza publikoak egin dituzten enpresen zentsua egin eta eguneratu, eskaintzaren eremua adieraziz. Zentsua publikoa izango da.

d) Arbitraia-hitzarmenaren moduak eratu eta interesdunei eskuratu, kontsumoko Arbitraia-sistemari ezar ez dakizkiokeen gaiak adieraziko direla.

Kontsumoko Arbitraia-sistema errazteko eta, orohar, konsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak defendatzeko behar diren sorospen eta laguntza funtzioak.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Kontsumoko Euskal Autonomi Elkarteko Arbitraiabatzordeko lehendakari eta idazkari karguak Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburuak izendatuko ditu, Euskal Autonomi Elkarteko administrazioko langileen artean.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburuari ahalmena ematen zaio dekretu hau garatu eta gauzatzeko behar diren beste xedapen emateko.

*Bigarrena.*– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko martxoak 8.

Lehen lehendakariordea
eta Ekonomi Gaietarako lehendakariordea,
JON IMANOL AZUA MENDIA.

Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburua,
ROSA DIEZ GONZALEZ.

b) Actuaciones de mediación respecto de las controversias derivadas de las quejas o reclamaciones de consumidores y usuarios.

c) Confeccionar y actualizar el censo de las empresas que hayan realizado las ofertas públicas de adhesión al sistema arbitral de consumo, en su ámbito territorial, con expresión del ámbito de la oferta. Este censo será público.

d) La elaboración y puesta a disposición de los interesados de los modelos de convenio arbitral, en los que se reflejarán las cuestiones que no puedan ser sometidas al sistema arbitral de consumo.

Cualesquiera otras funciones de asistencia y apoyo dirigidas a facilitar el sistema arbitral de consumo, así como en general las destinadas a promover la defensa de los derechos de los consumidores y usuarios.

DISPOSICION ADICIONAL

Los cargos de Presidente y Secretario de la Junta Arbitral de Consumo del País Vasco serán designados por la Consejera de Comercio, Consumo y Turismo entre personal al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta a la Consejera de Comercio, Consumo y Turismo para establecer las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de marzo de 1994.

El Vicepresidente 1
y para Asuntos Económicos,
JON IMANOL AZUA MENDIA.

La Consejera de Comercio, Consumo y Turismo,
ROSA DIEZ GONZALEZ.